

EUSKADIKO 73 UDALEK PARTE HARTU DUTE HERRITARREN ARRETARAKO ZERBITZUETAN BERRIKUNTZA SUSTATZEKO EUDELEN PROGRAMA BATEAN

- **2011ko azken sei hilekoan abian jarritako esperientzia pilotu hau CEMSDI proiektuaren barruan dago, eta, bertan, EUDEL eragile sustatzailea da.**
- **Euskadiko udalei aldaketa zuzendu eta kudeatzen laguntzeko tresna da programa, teknologia berrien eta antolaketa-arrazionalizazioen bitartez, administrazio irekiago eta hurbilagorako bidean.**
- **Ekimenean Euskadiko 73 udalek (42 udal zuzenean, eta 31 udal, udalerrien elkartearen bitartez) eta 119 pertsonak (udaleko alor eta proiektuetan erantzukizuna duten 53 kargu publiko eta 66 teknikari) hartu dute parte.**

Bilbon, 2012ko otsailaren 27an. EUDELEk Europako CEMSDI proiektuan parte hartzen du; helburua berrikuntzari dagokionez tokiko administrazioen gaitasunak sustatzea da. Euskadiko Udalen Elkarteak Europako beste hamahiru erakunderekin batera hartzen du parte Europako Batzordeak kofinantzatutako ekimen honetan. Parte-hartzaileak, besteak beste, tokiko agintarien elkarteak, eskualdeak, ikerketa zentroak, hezkuntzako erakundeak, GKEak eta enpresa pribatuak dira.

Proiektu honen barruan, EUDELEk prestakuntza programa bat jarri du abian 2011ko azken sei hilekoan; Euskadiko udaletako kargu publiko eta teknikariei zuzenduta dago, eta horren helburua da herritarren arretarako udal zerbitzuetan teknologia berrien berrikuntza eta erabilera sustatzea eta zerbitzu horien garrantzia indartzea.

Era horretan, programa teoriko eta praktikoaren helburua da antolaketa-arrazionalizazioan eta teknologien erabilera adimentsuan oinarritutako tresnak ahalbidetzea udalei.

Programan, **Tokiko Berrikuntza Agenda** proiektua ere erakutsi zaie parte hartzen duten udalei; ekimena EUDELek zuzentzen du, eta Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek babesten dute.

Agendak udaletan berrikuntzaren printzipioak garatzea du helburu, tokiko gobernu gardenagoa eta parte-hartzaileagoa eta herritarrei zerbitzuak emateko bide berriak bultzatuko dituen kultura-aldaketa ahalbidetzeko.

Azken finean, Euskadiko udalei aldaketa zuzendu eta kudeatzen laguntzeko tresna da programa, administrazio irekiago eta hurbilagorako bidean.

Ekimenean Euskadiko 73 udalek (42 udal zuzenean, eta 31 udal, udalerrien elkarte bitartez) eta 119 pertsonak (udaleko alor eta proiektuetan erantzukizuna duten 53 kargu publiko eta 66 teknikari) hartu dute parte.

Lortutako emaitzak

Lortutako emaitzei begira, programa pilotuari esker teknologia berrietan eta lankidetzan oinarritutako formula berritzaileak probatu ahal izan dira. Halaber, programa honen bitartez, Herritarren Arretarako Zerbitzuaren ezarpena diseinatzeko lagundu zaie 14 udali, eta azken horiek proiektuarekin jarraitzeko asmoa agertu dute.

Tokiko Berrikuntza Agendari dagokionez, prestakuntzan parte hartu duten kargu publikoen %83 euren erakundean Berrikuntza Agenda ezartzearen alde agertu dira.

2012an, EUDELek sortutako itzaropenei erantzuna eman nahi die CEMSDI programa pilotuaren bitartez, eta, horretarako, hiru ekintza-lerro osagarri garatuko ditu:

- Laguntzarako baliabideak jarriko ditu Berrikuntza Agenda sortu nahi duten udalen eskura.

- Lankidetza proiektuak sustatuko ditu herritarren zerbitzuen sarbidearen eta gardentasunaren eremuetan.
- Teknologian eta berrikuntzan lankidetzan aritzeko guneak eta sareak bultzatuko ditu.

www.eudel.net

Informazio gehiagorako:

Inés Jauregui

Tel.: 94 401 53 06/ 628 27 23 04

ines@vkcomunicacion.com